

GOBERNU JARDUERAREN 2019KO URRIKO MUGARRIAK

Zk.	I. oinarria: Enplegua, Ekonomiaren Suspertzea eta Jasangarritasuna	Data	Zabalkundea
1	Eusko Jaurlaritzak modu zentralizatuan kontratatuko du energia-iturri berriztagarrietatik abiatu %100ean sortutako energia elektrikoa EAEko Administrazio Orokorraren eta bere sektore publikoaren hainbat hornidura-puntuetarako. Euskal Administrazio Publikoa energiaren aldetik eraginkorragoa eta jasangarriagoa izan dadin sustatzea da helburua. Kontratazio horri dagokion gastua 73.507.586 eurokoa da guztira, 2020 eta 2021eko ekitaldietarako.	2019/10/01	Irekia Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Correo Euskadi noticias
2	Eusko Jaurlaritzak, 2020rako Enplegu Plan Estrategikoaren esparruan, adimen-desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikora jo dezaten sustatzeko jardun-ildoak onetsi ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan.	2019/10/01	Irekia EHAA Noticias de Gipuzkoa 20 Minutos Europapress Noticiaspress
3	Euskadik 15 milioi euro bideratuko ditu euskal industriaren efizientzia sustatzera. Euskal industriak 15 milioi euroko dirulaguntza-programa berri bat dauka, bi urtean energia-efizientzia hobetzeko denetarik jarduketak eta proiektuak babesteko erabiliko dena, industriaren energia-kontsumoa, haren energia-faktura eta karbono-emisioak murrizteko xedearekin.	2019/10/01	Irekia EHAA Noticias de Gipuzkoa Elperiódicodelaenergía
4	Bilboko Udalarekin batera, Bilboko Enplegu Planak aurkeztu ziren 2019-2020rako Enplegu Plan Arrunta ez ezik, Txokeko Enplegu Plana eta Gazteen Enplegu Plana ere bultzatu dira, bereziki kolektibo ahulenak eta gazteak lan-merkatuan sartzen laguntzeko. Plan horiek garatuta, 919 lanpostu sortuko dira.	2019/10/02	Irekia Deia El Correo 20 Minutos Cadena SER Cadena COPE Europapress Noticiaspress Bilbao24horasdigital lustel Mercaempleo
5	Lan eta Justizia Sailak Enpleguari buruzko I. Kongresua: "nondik gatoz, non gaude eta norantz goaz" antolatu du honako helburu hauekin: ekonomia irregularraren errealitatea eta etxeko lanean "emakume" eta "etorkin" aldagaiek nolako eragina duten aztertzea; eta, horrez gain, laneko arriskuen prebentzioaren, kontratua iraungitzearen, lanaldiaren, hitzarmen kolektiboaren eta langabezia-prestazioa eskuratzearen inguruan, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko gainerako langileekin eskubide-berdintasuneko formula bideragarriak proposatzea.	2019/10/03	Irekia (eus) youtube Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Correo Noticiaspress Cadena SER
6	Spri Taldearen Invest unitateak, Financial Timesekin elkarlanean, topaketa bat sustatu du Londresen, Euskadiko industria- eta teknologia-ekosisteman interesa duten hamabi bat enpresa britainiarrekin.	2019/10/03	Irekia SPRI Diario Vasco El Correo Noticiaspress
7	Euskadik eta Fukushima Lankidetzeta-memoranduma sinatu dute, energia berriztagarriari aplikatutako teknologien, efizientzia energetikoaren eta biltegiatze energetikoaren arloan.	2019/10/09	Irekia EITB (eus) EITB (es) Diario Vasco El Mundo Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Independiente Smartgridsinfo

8	Vitoria-Gasteizko Tokiko Enplegu Planak aurkeztu dira 2019-2020rako.	2019/10/09	Irekia El Correo Naiz Radio Vitoria Noticiaspress Gasteizhoy Gasteizberri
9	Euskadik Helsinkin aurkeztu ditu Euskal Hiri Agenda - Bultzatu 2050ren aurrerapenak eta hiri-berroneratzearen aldeko apustua. Helsinki Impact Conference 2019 izeneko bilerak Europako liderrak, adituak eta akademikoak batu ditu hiri-politika eta -berroneratzearen inguruan, eta helburu du hainbat mailatako irtenbideak adostea, hazkuntza azkarraren, immigrazioaren, hazten doan segregazioaren edo gure hirietako klima-aldaketaren ondoriozko erronkei erantzuteko.	2019/10/09	Irekia La Vaguardia Europapress 20 Minutos Noticiaspress
10	Eusko Jaurlaritzak mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreari laguntza emateko estrategia indartuko du nazioarteko merkatuaren zailtasunen aurrean eta ARDOA Basque Wine Office , sektoreari laguntza emateko bulegoa sortu du. Urtea amaitu baino lehen egongo da martxan euskal ardoen estrategia alor guztietan sendotzeko.	2019/10/10	Irekia EITB (eu) EITB (es) Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Correo Berria Noticiaspress Cadena COPE
11	Kanpaina bat aurkeztu da tokiko merkataritzaren balioa nabarmentzeko .	2019/10/10	Irekia El Correo Diario Vasco El Mundo Europapress Diarionorte
12	Bilera egin du Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak , eta honako gai hauek jorratu ditu: 2019ko zerga itunduen araberako diru bilketaren itxiera aurreikuspenak; zerga itunduen araberako diru bilketaren 2020rako aurreikuspenak; Foru Aldundiek 2020rako Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenak eta koefiziente horizontalak; egokitzapenerako funts orokorraren 2020rako zehaztapena; eta gizarte-zerbitzuen kartera garatzeko erakundearteko funtsa.	2019/10/12	Irekia IEITB (eu) EITB (es) Deia Noticias de Álava Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Correo El Mundo País Vasco
13	Eusko Jaurlaritzaren zorra murrizteko politikaren aurkezpena. Aurreikuspenen arabera, 2019an 597 milioi eurotan murriztuko da. Euskadi, Estatu osoan zor gutxien duen erkidegoa da.	2019/10/14	Irekia EITB (eu) EITB (es) Berria Diario Vasco Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Economista
14	Eusko Jaurlaritzak baimena eman dio Finantzen Euskal Institutuari Kaikuren %7,3 erosteko .	2019/10/15	Irekia EHAA EITB (eu) EITB (es) Deia 1 Deia 2 Noticias de Álava 1 Noticias de Álava 2 Noticias de Gipuzkoa 1 Berria El Correo Diario Vasco 1 Diario Vasco 2 El País Expansión Cinco días Vozpopuli Gasteizberri Gipuzkoagaur Cadena SER

15	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak abian jarri du erabilera turistikorako etxebizitzetako iruzurraren aurkako postontzia	2019/10/15	Irekia El Correo 1 El Correo 2 Diario Vasco El Mundo País Vasco Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Euskadinoticias El Confidencial Inmediario
16	Lehendakariak “Gaitasunez Harantzago Euskadiko Lehiakortasunari buruzko Konferentzia inauguratu du” . Bertan, eraldaketa demografiko-sozialaren, ekologiko-energetikoaren eta teknologiko-digitalaren aurrean eta haren zeharkako eraginaren aurrean, Unibertsitatearen, Lanbide Heziketaren, Enpresaren, Zientzia eta Teknologia Sarearen eta euskal erakundeen lana bateratzeko eskatu du, prestakuntza egokitzeko eta giza garapenean, talentuan eta hazkuntza jasangarrian inbertitzeko eta, horrela, hazkuntzarako eta kalitate handiagoko enplegurako aukerak sortzen jarraitu ahal izateko. <i>“Geuri dagokigu ahalegin gehigarria egitea eta elkarrekin egitea”</i> , esan du.	2019/10/16	Irekia youtube Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Correo Diario Vasco El Mundo Noticiaspress Cadena COPE
17	Gobernuak 2020ko Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Lege-proiektua onetsi du , 11.774 milioi euroko aurrekontua, hain zuzen.	2019/10/22	Irekia Irekia 2 Irekia 3 EITB 1 (eu) EITB 1 (es) EITB 2 (es) EITB 2 (es) Deia 1 Deia 2 Deia 3 Deia 4 Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa 1 Noticias de Gipuzkoa 2 Berria Gara 1 Gara 2 El Correo 1 El Correo 2 El Correo 3 El Correo 4 Diario Vasco 1 Diario Vasco 2 Diario Vasco 3 Diario Vasco 4 Diario Vasco 5 El Mundo 1 El Mundo 2 Gipuzkoagaur Diarionorte El Economista Expansión Expansión 2 20 Minutos
18	Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua, Lan eta Justiziako sailburua eta Ogasun eta Ekonomiako sailburua Confebaskeko lehendakariarekin bildu dira. Bileretan, interesa duten gaiak aztertu dira: elkarriketa sozialaren mahaia, negoziazio kolektiboa, segurtasuna eta lan-osasuna, enpleguaren sustapena eta Euskadiko enplegurako prestakuntza-premiak, finantza- eta aurrekontu-gaiak eta euskal ekonomiaren eta enpleguaren hazkunde aurreikuspenak.	2019/10/08 2019/10/23	Irekia 1 Irekia 2 Irekia 3 Confebask 1 Confebask 2 Deia 1 Deia 2 Noticias de Gipuzkoa 1 Noticias de Gipuzkoa 2 Noticias de Álava 1 Noticias de Álava 2 El Correo Diario Vasco 1 Diario Vasco 2 Noticiaspress

19	Martxan jarriko da “Renove 4.0 programa” berria, 4 milioi euroko deialdiarekin . Industria-inguruneetako gailuen eraldaketa digitalean lagunduko du programa horrek.	2019/10/23	Irekia (eu) EHAA EITB (eu) EITB (es) Deia Noticias de Gipuzkoa El Mundo Diario Vasco La Vanguardia Europapress Noticiaspress Agenciadenoticias gentedigital 20 Minutos Cadena SER
20	Euskal Autonomia Erkidegoa Europako herrialdeen mailan dago 2019an goi-mailako berrikuntzan . Hala adierazi du Eustatek Europako Berrikuntza Adierazleen Panela -Innovation Union Scoreboarden datuak kontuan hartuta.	2019/10/26	Euskadi.eus Eustat Deia Noticias de Gipuzkoa Noticias de Álava Thinkuplks
21	SPRI taldeak “Basque Industry 4.0-The Meeting Point” topaketa antolatu du: 4.0 Industria gizartearen zerbitzuan jartzeko, Basque Cybersecurity Day ekitaldian txertatuta ospatzeko, eta erakusketa-eremua handitzeko eta Basque Research & Technology Alliance (BRTA) euskal partzuergo teknologikoari nahiz Bind 4.0 azeleragailu publiko-pribatuko startupeko protagonismo handiagoa emateko. 2019ko azaroaren 20an eta 21ean egingo da.	2019/10/28	Irekia EITB (eu) EITB (es) Deia Noticias de Gipuzkoa El Correo Berria
22	Dekretu-proiektu bat onartu da Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna dutenen enplegagarritasunarekin zerikusia daukaten programak eta zerbitzuak arautzeko, baita Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa ere.	2019/10/29	Irekia El Correo La Vanguardia P. Vasco Noticiaspress
23	2019a amaitu aurretik, 1.026 plazarako deialdia egingo da enplegu publikoaren eskaintza batean Euskadiko Administrazio Orokorreko.	2019/10/29	Irekia EITB (eu) EITB (es) El Correo Diario Vasco Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Berria El Mundo País Vasco 20 Minutos Europapress
24	Donostiako Tokiko Enplegu Planak aurkeztu dira 2019rako. Zenbatekoa: 1.418.520 euro	2019/10/30	Irekia 20minutos diariovasco noticiasdegipuzkoa
Zk.	I. oinarria: Giza garapena, Gizarteratzea, Berdintasuna eta Kalitatezko Zerbitzu Publikoak	Data	Zabalkundea
25	Erretzeari uzteko farmako bat finantzatuko du Osakidetza.	2019/10/01	EITB El Correo Diario Vasco Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Gipuzkoagaur Bizkaiagaur Agenciadenoticias Cadena SER

26	Esna dagoen pazientearekin egiten den garuneko kirurgiaren proiektuak, Osakidetzak eta Basque Center of Cognition, Brain and Language (BCBL) zentroak garatua izan denak, Autonomia-erkidego batek sustatutako Osasuneko Berrikuntza Teknologiko onenaren saria jaso du Fundación Tecnología y Salud eta Federación Española de Empresas de Tecnología Sanitariaren eskutik.	2019/10/02	Irekia Deia El Correo Noticiaspress EITB
27	Abian jarri da Bilboko epaitegietan, Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza integrala emateko "Zurekin" programa . Hauek dira helburuak: epaitegietan ibiltzeak biktimarengan sortzen duen antsietatea arintzea; prozesuaren inguruko informazio xehatua eskainiz, biktimari egoerari aurre egiteko behar dituen tresnak ematea; biktimaren epaitegirako sarrera kudeatzea, erasotzailearekin edo honen familiarekin aurrez aurre ez topatzeko babes-neurriak ipiniz; eta itxaronaldia sozializatzea, edo sor daitezkeen ezustekoak konpontzea. IRSE-EBI entitateak emandako zerbitzuen bitartez gauzatuko da proiektua 2020ko abenduaren 31rarte, eta kostea 249.250 eurokoa izango da.	2019/10/02	Irekia Deia Noticias de Álava El Correo 1 El Correo 2 Diario Vasco Berria El País Diario norte Europapress El Confidencial EITB Cadena SER Cadena COPE
28	Euskadi Literatura Sariak eman dira: Irati Elorrietari literatura euskaraz kategorian, Patxi Zubizarretari Haur eta gazte literatura euskaraz eta Asisko Urmenetari ilustrazioan.	2019/10/02	Irekia El Correo Diario Vasco Deia Noticias de Gipuzkoa Naiz 20 Minutos EITB
29	Euskadiko ehun ikastetxek parte hartuko dute ikasturte honetan Europako eTwinning programan . Programan parte hartzen duten ikasleek proiektu bat garatzen dute beste herrialde batzuetako ikasleekin lankidetzan, IKTak (Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) erabiliz.	2019/10/02	Irekia Noticiaspress
30	Arabako Barriako eta Espejoko foru-aterpetxeek "Ingurumen-ekimen onenaren" saria jaso dute Reaj-Gazteen aterpetxeen Estatuko sarearen eskutik, 2016tik sukalde eta jangeletako hondakinekin eginiko konpostaje-planagatik eta karbono-aztarnan eginiko murrizketagatik eta kalkuluagatik.	2019/10/03	Irekia Noticiaspress
31	Martxan jarri da Alokairuko Merkatuaren Estatistika (AME); tresna horrek Euskadiko udalerrietako alokairuen benetako prezioa eskaintzen du.	2019/10/03	Irekia Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Berria Gara Naiz El Correo 1 El Correo 2 Diario Vasco El País El Mundo Noticiaspress Diarionorte Europapress EITB
32	Eusko Legebiltzarrean aurkeztu da SANO Euskadiko haur- obesitatea prebenitzeko estrategia ; 30 ekintza planteatzen ditu zenbait eremutan, jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria sustatzeko, eta horietako 15, dagoeneko, martxan daude.	2019/10/08	Irekia Euskadi.eus El Correo Diario Vasco Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa

33	Eusko Legebiltzarrean aurkeztu da Osakidetzaren Eskaintza Publikoaren eredu berria . Pixkanaka aplikatuko da eta ahalik eta adostasun handiena lortzea du helburu. Dokumentuak Rafael Jimenez Asensio irakaslearen, Arartekoaren, IVAPen, UPV/EHUren, elkargo profesionalen edo talde politikoen ekarpenak jaso ditu, urtebetez 30 bileratan garatutako parte hartzeko prozesu bati esker.	2019/10/08	Irekia Deia 1 Deia 2 Deia 3 Noticias de Álava 1 Noticias de Álava 2 Noticias de Gipuzkoa 1 Noticias de Gipuzkoa 2 Berria El Correo 1 El Correo 2 El Correo 3 El Correo 4 Diario Vasco 1 Diario Vasco 2 Gara
34	Aurkezpena: BAIETZ prozesua. Segurtasun publikoaren kudeaketa estrategikoa eta taktikoa. Delituaren analisisa Ertzaintzan . Lanaren helburua da ezagutza kriminalak bideratutako poliziaren hurbilketa-estrategiaren osagai nagusiak eta lan-esparrua kontzeptualizatzea. Bai eta ereduaren Ertzaintzan modu koherentean ulertzen eta ezartzen laguntzea, delituaren analisiaren zientzia agente bakoitzaren gaitasuna eta kompetentziak hobetzea eta segurtasun publikoaren arloko politikak formulatzeko eta segurtasun-arazoei heltzeko kudeaketa-esparru metodologiko bat ezartzea ere, etorkizun-ikuspegi proaktibo baterantz jo ahal izateko delituen prebentzioa eta delituak gutxitzea sustatzearen.	2019/10/09	Irekia Deia Diario Vasco Noticiaspress
35	Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eLiburutegia plataformak 2019ko Vodafone Deia Innovation Sariaren bosgarren edizioan saria jaso du internet bidezko kultura-edukien kategorian.	2019/10/09	Euskadi.eus Deia
36	Abian da gripearen aurkako 2019ko txertaketa kanpaina .	2019/10/10	Irekia EHAA El Correo 1 El Correo 2 Deia Diario Vasco Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Berria El Mundo Euskadinoticias COPE irratia
37	ScotlandGoesBasque programaren barruan, egon da euskal presentzia Eskoziako kulturaren hainbat esparrutan . Amaitzeko, <i>Mugarik gabeko ala mugatutako esparrua? Hizkuntza gutxituetako hedabideak eremu digitalean</i> nazioarteko kongresua egin da Edinburgoko Unibertsitatean, baita zinema-dokumentaleko ziklo bat ere.	2019/10/10	Irekia Noticias de Gipuzkoa Gara Berria El Correo
38	Eusko Jaurlaritzak herritar guztien eskura jarri du Itzultzaile Automatiko Neuronala , adimen artifizialeatik abiatuta herritarren erabilerarako sortu duen proiektu praktikoa.	2019/10/16	Irekia EITB (eu) EITB (es) El Correo Diario Vasco Diario de Noticias Gara Berria Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa 20 Minutos Europapress Expansión Gipuzkoagaur Bizkaiagaur Noticiaspress Diario Norte Agenciadenoticias

39	Euskadik lan-irtenbideak emango dizkie bidaiderek gabeko adingabe atzerritarrei tutoretza amaitutakoan.	2019/10/16	Irekia Noticias de Gipuzkoa El Mundo Berria El Independiente ABC Noticiaspres SER katea.
40	Euskadik bere historiako osasun-prestakuntza espezializatuko egoiliarren eskaintzarik handiena lortu du.	2019/10/18	Irekia (eu) Irekia (es) youtube Noticias de Álava El Correo Diario Vasco Noticiaspres Actasanitaria Redacciónsanitaria
41	Abendutik aurrera, Osakidetza bularreko areolaren eta titiburuen pigmentazioa jasoko du mastektomizatutako emakumeen zerbitzu-zerrendan.	2019/10/21	Irekia EITB Youtube Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa El Correo Diario Vasco 1 Diario Vasco 2 La Vanguardia Diarionorte Europapres 20 Minutos Actasanitaria Gipuzkoagaur Donostitik Elmédicointeractivo Consalud
42	<i>Creative Cities Monitor</i> izenburuarekin Europar Batasunak hirien eta sormenaren inguruko urteko txostenean , Euskadi erreferentetzat identifikatu da. Europako Batzordeko Berrikuntzaren Europako Agentziak argitaratu du txostena.	2019/10/22	Irekia Creative cities monitor 20 Minutos Diarionorte
43	Jaurlaritzak familia eta lana bateratzeko laguntzen Dekretua onartu du. Eta dagozkion eskabideak aurkezteko instantzia normalizatuak ere onartu ditu.	2019/10/22 2019/10/31	Irekia EHAA EHAA EITB (es) 1 EITB (eu) 2 EITB (es) 2 El Correo 1 El Correo 2 El Correo 3 Diario Vasco 1 Diario Vasco 2 Diario Vasco 3 Gara 1 Gara 2 Gara 3 Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa 1 Noticias de Gipuzkoa 2 Noticias de Gipuzkoa 3 20 Minutos Naiz Gipuzkoagaur Diarionorte Noticiaspres Agenciadenoticias Vozpopuli Theworldnews Cadena COPE Cadena SER

44	Osasun eta Hezkuntza Sailek, Nutrizio eta Dietetika Taldearen (UPV/EHU eta CIBERobn) ikertzaileekin batera, proiektu pilotu bat jarri zuten abian, bi ikastetxetako zortzi eta hamaika urte bitarteko eskola-ikasleen artean, Iniciativas para una Alimentación Saludable en Euskadi "/ " Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenak " programaren barruan. Emaizak aztertu ondoren egiaztatu da ikasle parte-hartzaileek nabarmen handitu dutela kontsumitzen duten fruta, barazki eta arrain kopurua.	2019/10/24	Ireka Diario Vasco 20 Minutos Noticiaspress Actasanitaria Gasteizhoy
45	200 motozale inguruk parte hartu dute Nafarroan, Los Arcoseko zirkuituan, Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan antolatutako bide-segurtasuneko formakuntza-ekintzan . Partaideen % 70 inguru Euskadikoak izan dira eta gainerako % 30 Foru Erkidegokoak.	2019/10/27	Ireka EITB (eu) EITB (es) El Correo Deia Noticias de Gipuzkoa Navarra.es Navarra.com Diario de Navarra Navarra información Estella directo La Vanguardia PV Europapress Noticiaspress Diarionorte Bilbao24horas
47	"Zirkulatzeko PREST" jarri da abian, bide-segurtasunari buruzko sentsibilizazio-programa berria. Familiei eta, orokorrean, herritar guztiei, eta, bereziki, adinekoei eta gazteei, dago zuzenduta.	2019/10/28	Ireka Noticiaspress Euskadi noticias
48	Kerik Gabeko Herriak proiektu-pilotua jarria da martxan, ikastetxeetako sarreran tabako-kontsumoa saihesteko .	2019/10/29	Ireka EITB (eu) EITB (es) El Correo 1 El Correo 2 Deia Diario Vasco Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Europapress Actasanitaria Infosalus Cadena SER
49	Euskal Osasun Zerbitzua- Osakidetza saritua izan da. 2019ko Best in Class sari bi jaso ditu Psikiatria eta Anestesia–Bizkortzea arloetan, eta finalista geratu da beste bost kategoriatan.	2019/10/30	Ireka Deia Noticiaspress
Zk.	III. oinarria: Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak	Data	Zabalkundea
49	Lehendakariak Buenos Airesko Museo Sitio de Memoria ESMA ko arduradunak hartu zituen. Gogora institutuak beste herrialde batean egindako memoriaren eraikuntza Euskadin ezagutzeko eta zabaltzeko egin duen nazioarteko lehen ekimena.	2019/10/30	Ireka Deia Noticiaspress Noticias de Gipuzkoa Noticias de Álava

URRIKO 2019 BESTE MUGARRIAK			
ZK.	Deskribapena	Data	Zabalkundea
1	BCSC-k (Basque Cybersecurity Centre - Zibersegurtasunaren Euskal Zentroa) CERT (Computer Emergency Response Team - Larrialdi Informatikoen aurreko Erantzun Ekipoa) marka erregistratua erabiltzeko akreditazioa lortu du Carnegie Mellon Unibertsitatearen eskutik eta zibermehatxu kasuetan planetako edozein tokitan jardun ahal izango du.	2019/10/01	Deia Noticias de Álava

2	Irakurketa-tasa Euskadin Espainiako batez bestekoa baino bost puntu gorago dago, Kultura eta Kirol Ministerioaren Ohitura eta praktika kulturalen inkestaren arabera.	2019/10/02	Diario Vasco
3	Euskadik krisiaren aurretik baino enpresa handi gehiago dauka dagoeneko. Euskal enpresen batez besteko tamaina hazten joan da azken urte hauetan, eta Euskadin krisiaren aurretik baino, hau da, 2008an baino 200 langiletik gorako enpresa handi gehiago dago. Hala dio bere azken txostenean Confebaskek	2019/10/04	Confebask El Correo Deia Noticias de Álava Noticias de Gipuzkoa Expansión
4	Ibilgailu elektrikoak azkar kargatzeko Europako punturik handiena Euskadin dago. Abanto Zierbenako Ugaldebietako gasolina-zerbitzugunean jarri da, Energiaren Euskal Erakundeak sortutako ibilgailuak kargatzeko enpresaren eta Petronorren jabe den Repsol enpresaren eskutik.	2019/10/07	Deia Noticias de Gipuzkoa Berria El Mundo El País El País Espantion
5	Europako Batzordeak ehunetik 63,6 puntu eman dizkio euskal lehiakortasunari. Euskal Autonomia Erkidegoa, lehiakortasunari dagokionean, 125. tokian dago Europako 268 eskualdeen artean eta bigarren Espainian.	2019/10/08	Noticias de Gipuzkoa Expansión El Mundo La Vanguardia Europapress El Confidencial
6	Lemoizko (Bizkaia) zentral nuklearraren lursailak, enplazamendua eta instalazioak laga dizkio Estatuak Eusko Jaurlaritzari.	2019/10/17	BOE El Correo El Mundo La Vanguardia El Portal de la acuicultura
7	Confebask elkartearen arabera, Gizarte Segurantzaren inskribatutako euskal enpresen kopurua, abuztukoarekin alderatuta, 808 hasi zen 2019ko irailean, 58.800 izan arte, guztira.	2019/10/18	Confebask Diario Vasco
8	Ezagutzaren eta Teknologiaren euskal industriren hedapena bizkortu egin da. GAIA – Euskadiko TEIC Klusterrak emandako datuen arabera, klusterrera atxikitako 254 enpresek 5.171 milioi euro fakturatu zituzten 2018an –euskal BPG %7–, hau da, 2017an baino % 4,3 gehiago. Salmenta horien %42 –2.068 milioi, nazioarteko merkatuetatik etorri zen eta %8,5eko igoera erregistratu zuten.	2019/10/21	Gaia Diario Vasco
9	EUSTATEk emandako datuen arabera, goi teknologiako sektorea Euskal Autonomia Erkidegoak sortutako balio erantsiaren % 8,8 izan zen 2017an, eta pertsona landunen % 8,5. Salmentak % 5,8 handitu ziren, eta balio erantsia % 4,2, aurreko urtearen aldean	2019/10/29	Eustat Deia Noticias de Gipuzkoa Gasteizberri
10	Euskadik 517 milioiko superabita du, BPGren % 0,7, Ogasun Ministerioak 2019ko hirugarren hiruhilekoari buruz emandako datuen arabera.	2019/10/30	Ministerio de Hacienda El Correo Noticias de Gipuzkoa